

Egoera ekonomikoa eta
Merkatuak
ASTEKO LABURPENA

2019ko ekainaren 24tik 28rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: KPI



Datuaren analisisia


Ekaineko UMEaren aurretiko inflazioaren ezaugarri nagusia azpiko erreferentziaren hazkunde nabarmena izan zen. KPI orokorrak egonkor eutsi bazion ere, urte arteko % 1,2an, espero zen moduan, azpikoak hiru hamarren egin zuen gora, % 0,8tik % 1,1era, espero zena baino hamarren bat gehiago. Herrialdeei begiratuta, Alemanian Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak % 1,3 egin zuen behera ekainean, aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Frantzian, % 1,4ra igo zen, aurreko hilean baino hiru hamarren gehiago; eta Espainian, % 0,6an kokatu zen, aurreko hilean baino hiru hamarren gutxiago.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: IFO ALEMANA



Datuaren analisi

Dau negatiboak IFO Institutuak Alemaniako enpresei egindako inkestan. Enpresen konfiantza-indizea hiru hamarren erori zen ekainean, 97,4ra, merkatuan aho batez aurreikusitakoa; hiru hilabetez jarraian egin du behera, eta 2014ko azarotik izan duen mailarik baxuenean dago. Oraingo egoeraren pertzepzioak bi hamarren egin zuen hobera, 100,8 puntuetaraino. Enpresen espektatibek ekarri zuten alderdi negatiboa, 94,2 puntuetaraino erori baitziren, maiatzeko 93,5 puntuetatik. Industria-sektorea konfiantza faltaren epizentroan kokatu zen Alemaniako ekonomian.


Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako jarduera ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: BPGd

PIB USA (Contribuciones)



Datuaren analisia


Ekonomiak urteko % 3,1eko erritmoan egin zuen aurrera 2019ko lehen hiruhilekoan, epealdi horretako BPGd-aren hirugarren eta azken kalkuluaren arabera. Urtarrila eta martxoa bitarteko jardueraren ehunekoa aurretik kalkulatuakoaren eta adituen aurreikuspenen parekoa da, eta horrek baieztatzen du Estatu Batuetako ekonomiak sendo eutsi diola 2019aren hasierari. Estatu eta tokiko gobernuen gastua, kanpo-merkataritza eta inbentarioetan egindako inbertsioak izan ziren igoera ekonomikoaren motore nagusiak urteko lehen hiletan. Herrialdeko jardura ekonomikoaren bi heren den kontsumitzaileen gastua urteko % 0,5eko erritmoan hazi zen, azken urteko igoerarik apalena.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Aurreko hilarekin alderatuta, Industria-ekoizpenak % 2,3 egin zuen gora maiatzean, urtebetetik gorako epean izan duen erritmorik azkarrenean. Hala ere, 2018ko maiatzarekin alderatuta, adierazleak % 1,8 egin zuen atzera. Maiatzean, industria-ekoizpenaren hazkundeari ekarpen handiena egin zioten sektoreak ibilgailuen fabrikazioa, informazio eta komunikaziorako makina elektronikoak eta ekoizpen-makinak izan ziren. Jaitsiera handiena izan zutenak, aldiz, garraio-makinena eta manufacturena orokorrean izan ziren.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
07/01	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	50.1
07/01	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	49.9
07/01	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	52.0
07/01	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	45.4
07/01	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	47.8
07/01	Erresuma Batua	Markit, RU SAREN PMI fabrikazioa	49.2
07/01	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 7.6
07/01	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	--
07/01	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	51.2
07/01	Alemania	Hileko xehekako salmentak	% 0.5
07/03	Japonia	Markit Japan PMI Composite	--
07/03	Japonia	Markit Japan PMI Services	--
07/03	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
07/03	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	52.6
07/03	Espainia	Markit PMI zerbitzuak Espainia	53.0
07/03	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	--
07/03	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	53.1
07/03	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	52.9
07/03	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	55.6
07/03	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	52.6
07/03	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	53.4
07/03	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	52.1
07/03	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI	50.9
07/03	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	--
07/03	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	140k
07/03	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$52.0b
07/03	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
07/03	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	--
07/03	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
07/03	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren agindua	--
07/04	Eurogunea	Urte arteko xehekako salmentak	--
07/05	Frantzia	Balantza komertziala	--
07/05	Espainia	Urte arteko SA industria-ekoizpena	% 0.7
07/05	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 3.6

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSA:

Galera moderatuak burtssetako munduko indize nagusietan, trantsizio aste batean, bolumen estuagoekin. AEB eta Iranen arteko tirabirek, baina, batez ere Trump eta Txinako buruaren artean ekainaren 29an, larunbatean, G20aren goi-bileran programatutako bileraren inguruko zalantzek inbertsiogileak zuhurtziaz jokatzea eraman zituzten, eta kasu askotan, errenta aldakorrean posizioak hartzeko unea atzeratu zuten. Iranekin daukan gatazkan, Trumpek dekretu bat sinatu zuen, isun berriak jartzeko, eta horrela, Iraneko goi-liderrari eta beste zortzi agintari militarri finantza-tresnak eskuratzeko debekua jarri zien. Iraneko erregimenaren gaineko setio ekonomikoa gogortzeko eta negoziatziora bultzatzeko asmoz. Horrez gain, helburu amerikarren batek erasoren bat jasoz gero, Iparramerikako presidentek «Iraneko eremu batzuk» suntsitzeko mehatxu egin zuen. G20an AEB eta Txinaren arteko topaketari dagokionez, hitzordurako atzera-kontua adierazpen eta informazioz beteta egon zen, baina mezu argirik gabe. Horrek ezinegona eragin zuen merkatuetan. Batetik, Estatu Batuetako administrazioak adierazi zuen Txinarekin adostu beharreko akordio komertziala % 90ean itxita zegoela. Baina, bestetik, akordiorik lortu ezean, Txinatik datozen produktuei mugasari gehiago aplikatuko dizkiola mehatxu egin zuen berriro Trumpek. Txinako hedabideek ostegunean baieztatu zuten AEBek eta Txinak tregua komertziala hitzartu zutela, G20aren aurretik. Hala ere, Etxe Zuriko aholkulariak informazio hori ezeztatu zuen, jakitera eman zuenean Trump «aurrealdintzarik» gabe helduko dela bilerara. Azkenik, larunbatean, bi herrialdeek elkarrizketei berrekitea adostu zuten. Trumpek tarifa berririk ez jartzea eta Huawei irarritako mugapenak kentzea onartu zuen, eta Txinak Amerikako nekazaritza-arloko produktuak erosteko konpromisoa hartu zuen.

ERRENTA FINKOAK:

Zorraren errentagarritasunak lasaitu egin ziren berriro, arlo komertzial eta geopolitikoan bizi dugun tentsio handiaren testuinguruan. Erosketek minimoetara eraman zuten Alemania eta Espainiako 10 urterako bonoen etekina. AEBetan, diru-politiken gehiegizko lasaitzearen inguruan merkatuek zituzten aurreikuspenak moderatzeko Fed-eko kideek egin zituzten adierazpenak gorabehera, tasa subiranoek beherezko joerak izan zituzten itxieran. Kredituak diferentzialak estutu zituen.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Dolarra eta yenak balio apur bat galdu zuten euroaren aurrean, G20an gertatuko denaren zain. Euroaren aurrean balio pixka bat ere galdu zuen liberak arretaz begiratzen die Brexitaren inguruko nobedadeei. Boris Johnson, Mayren ondorengoa izateko hautagaia, akordiorik gabeko Erresuma Batuaren irteera bat onartzeko prest egongo litzateke. Lehengaiak dagokienez, petrolioaren prezioak % 0,62 egin zuen behera, aste honetako LPEEren bileraren eta Osakako goi-bileraren aurretik. Urreak gora egin zuen, eta 2013tik izan duen mailarik altuenera iritsi

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa % Astean	Ald. 2019
MSCI WORLD (Local)	1.662,54	-0,18	15,34
IBEX 35	9.198,80	-0,31	7,72
DJ EURO STOXX 50	3.473,69	0,20	15,73
DJ STOXX 50	3.178,94	-0,01	15,18
FTSE	7.425,63	0,24	10,37
S&P 500	2.941,76	-0,29	17,35
Dow Jones	26.599,96	-0,45	14,03
NASDAQ	8.006,24	-0,32	20,66
NIKKEI 225	21.275,92	0,08	6,30
MSCI GORAKORRAK (Lo)	58.072,03	-0,13	8,71
MEXBOL	43.161,17	-0,84	3,65
BOVESPA	100.967,20	-1,02	14,88
SHANGHAI	3.119,99	-0,77	19,48
Errusia Rts Mosku	1.380,52	0,40	29,49

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,75	-0,01	-0,14
ESPAINIA 2 URTE	-0,43	-0,01	-0,18
AEB 2 URTE	1,75	-0,01	-0,73
ALEMANIA 10 URTE	-0,33	-0,04	-0,57
ESPAINIA 10 URTE	0,40	-0,04	-1,02
AEB 10 URTE	2,01	-0,05	-0,68
ALEMANIA 30 URTE	0,27	-0,03	-0,61
ESPAINIA 30 URTE	1,38	-0,05	-1,23
AEB 30 URTE	2,53	-0,05	-0,49
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/24*	52,51	-1,27	-35,86
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/24	253,94	-0,70	-99,74

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
Dolarra / Euroa	1,14	-0,01	-0,88
Yena / Euroa	122,67	0,53	-2,40
Libera / Euroa	0,90	0,46	-0,35

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Petrolio (Brent)	64,43	-0,62	21,18
Urrea	1.409,45	0,70	9,90

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.